

# AHIMSA



## Gatazkak konpontzea

“AHIMSA” bideoaren jarduera-gida  
Gatazka modu baketsuan konpontzea. “Munduko Hiritarrok” hirugarren urtea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXEBERTZA ETA GIZARTE  
GABETAKO SARLA  
Gizarte Ongizateko Sabunondetza  
Garaipen Lanbidegarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y  
ASUNTOS SOCIALES  
Viceconsejería de Bienestar Social  
Dirección de Cooperación al Desarrollo



ALBOAN

## Bideoaren laburpena

*Kultura, ikuspuntu, premia, interes... ezberdinak dituzten herritarrek eta taldeek osatutako gizartean bizi gara. Horixe dugu, bada, aniztasunaren aberastasuna. Aberastasun horretan sartzen da gatazka ere, ez baitago gatazkarik gabeko bizitza sozialik.*

*AHIMSAk –gatazkei ekiteko Indiako tradizioetik datorkigun aspaldiko jokabidea– erakusten digu gure gatazkak bake bidez konpontzen. Filosofia horren barruan, adin eta kultura askotako pertsonen gatazkak ebazteko era desberdinak erakusten dizkigute, elkarrizketa erabiliz eta indarkeria baztertuz; hartara, gatazka ikasketa eta heziketa pertsonalerako eta sozialerako tresna bihurtzen da.*

## Aurkezpena

**Ahimsa** bideoan dauden edukiak lantzeko jarduera-sorta du honako material honek.

Jarduera hauek, parte hartzeko metodologiaren bidez, herritartasuna eta gatazken tratamendua jorratzen dute, bideoaren edukiari ahalik eta etekin handiena ateratzeko aukera emanez.

Proposamen hau 12tik 18 urterainoko 20-30 pertsona bitarteko taldeetan erabiltzeko diseinatu da. Material irekia denez, bai irakaskuntza formalean bai ez-formalean erabil daiteke.

### Helburuak

- Gatazkei (pertsonalak, komunitate artekoak eta nazioartekoak) irtenbide baketsua ematearen garrantziaz jabetzea.
- Gatazkak elkarrizketa bidez konpontzeko hainbat modu eta esperientzia ezagutzea.
- Taldeko lanean entzuteko, laguntzeko, parte hartzeko eta adiskidetzeko jarrera aktiboa izatea.
- Bizitzako esparru guztietan parte hartzea (familian, eskolan, lagun-taldean, auzoan, herrian...) errealitatea aldatzeko konpromisoa onartuz.
- Hainbat gauza ikastea gatazken tratamenduaren bidez.

## Edukiak

### Kontzeptuzkoak:

- Ahimsa eta indarkeriarik eza.
- Komunikazioaren garrantzia gatazken tratamenduan eta konponbidean.
- Negoziazioa eta bitartekaritza, gatazkek konpontzeko bi bide.
- Herritarrak eta gatazka.
- Gatazka hazkunde-aukera gisara.

### Prozedurazkoak:

- Gogoeta, elkarrizketa eta eztabaida.
- Jokoa.
- Informazioa bildu, maneiatu, tratatu eta interpretatu.
- Rol-jokoa.

### Jarrerazkoak:

- Besteak aktiboki entzutea.
- Elkarrizketa- eta errespetu-jarrera.
- Laguntzeko eta adiskidetzeko jarrera.
- Gatazkek bake bidez tratatu eta gainditzeko motibazioa.
- Jarrera positiboa gatazkei aurre egiteko.

## Metodologia

Talde-lana, entzutea eta denen parte hartzea bultzatzen duten dinamikien aldeko metodologia aktiboa proposatzen da. Hartara, material interesgarria izango da ikasleentzat, eta erraz erabiltzekoa irakasleentzat.

Hiru talde handitan daude banatuta jarduerak, erabiltzeko une egokiaren arabera. Lehenbiziko taldean honako hauek aurkezten dira: taldeak gatazkei eta jarrerei buruz dituen ideiak (proiektzioaren aurrekoak); bideoa ikusteko gidoia (ikusi ahala osatzeko) eta, azkenik, bideoa ikustea amaitu ondoren egiteko zenbait jarduera.

## Ebaluazioa

Materialaren eragina eta adierazitako helburuak zein mailataraino lortu diren balioztatzeko, hemen duzue taldea ebaluatzeko kontuan izan beharreko irizpide nagusien behaketa-erregistroa.

| Behaketa-gidoia  | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|--|---|---|---|---|---|
| Landutako edukien ulertze-maila.   |   |   |   |   |   |
| Talde-lanetan parte-hartzearen maila                                     |   |   |   |   |   |
| Talde-laneko arau eta erregeletara moldatzea.                            |   |   |   |   |   |
| Beste iritzi eta ideia batzuk jaso, errespetatu eta onartzeko gaitasuna. |   |   |   |   |   |
| Eztabaidetan eta jardueretan parte hartzeko maiztasuna.                  |   |   |   |   |   |
| Sormena eta sintesi-ahalmena eztabaidetan eta ideia-elkartzeetan.        |   |   |   |   |   |
| Hausnarketa eta elkarrizketarako gaitasuna.                              |   |   |   |   |   |
| Egoera gatazkatsu edo konplexuetan erabakiak hartzeko gaitasuna.         |   |   |   |   |   |
| Herritar gisa norberaren erantzukizuna onartzeko gaitasuna.              |   |   |   |   |   |
| Jarrera positiboa gatazkak tratatu eta konpontzeko.                      |   |   |   |   |   |

ALBOANen web orrian, galdera-sorta duzue irakasleok eta ikasleok bideoari eta jarduera-proposamenari buruzko ebaluazioa egiteko. ALBOANen Elkartasuneko Hezkuntza taldearentzat oso garrantzitsua eta baliotsua da zuen iritzi eta balioespen guztien berri izatea; izan ere, hezkuntza-materiala lantzen jarraitzeko funtsezkotzat jotzen baititugu. Beraz, zuen laguntza izango dugulakoan gaude.

Ebaluazioak helbide honetan dituzue: <http://www.alboan.org>

Beste bitarteko batzuk ere baditu ALBOANen gatazken tratamenduari buruzko hezkuntza-proposamenak:

- girotzeko posterrak,
- proposamen didaktikoak dituzten karpetak,
- jokoak,
- ikastetxe arteko proposamena,
- aholkularitza eta trebakuntza ALBOANen Elkartasuneko Hezkuntza taldearen aldetik.

Era berean, horien antzeko beste material batzuk badira eskubideak, erantzukizunak eta parte-hartze soziala lantzeko (herritartasun-konzeptuaren barruan betiere), eta horiek ere ALBOANI eska dakizkieke.

### Informazio gehiago nahi izanez gero:

**ALBOAN** Funikular plaza, 2, 2. • 48007 Bilbo • [alboanbi@alboan.org](mailto:alboanbi@alboan.org) • 944 15 11 35  
Bergamin kalea, 32. zk. • 31004 Pamplona • [alboanna@alboan.org](mailto:alboanna@alboan.org) • 948 231 302  
Erronda kalea, 7 zk., 4. I. • 20001 Donostia • [alboangi@alboan.org](mailto:alboangi@alboan.org) • 943 320 267

## Ahimsa

### Helburuak:

- Jakitea zer esan nahi duten 'ahimsa'k eta 'indarkeriarik eza'k.
- Aztertzea indarkeria ezaren balioa gatazka tratatzeko sistematzat.

### Garapena:

Bideoaren izenburu misteriotsu horren ("Ahimsa") jatorria aztertzeko eskatu taldeari, baita indarkeria eza bizitza-planteamendu gisara ere.

**Materiala:** Ahimsa fitxa.

**Iraupena:** 30 minutu.

## AHIMSA

*Zer da Ahimsa? Zeren tankera hartzen diozu? Zein du jatorria? Zer hizkuntzatan dago?*

*Saia zaitzete gauza gehiago jakiten hitz misteriotsu horretaz. Bilatu Interneten, liburuetan...*

*Hona hemen aztarna bat: bizi- eta etika-planteamendua da AHIMSA, eta indarkeria eza esan nahi du. Horrelaxe idazten dugu, bai: indarkeria eza. Ghandik zioen indarkeria eza dela biderik eraginkorrena (eta kalte gutxien eragiten duena) jende zapalduaren eta baztertuaren eskubide politikoak eta ekonomikoak aldarrikatzeko. Indarkeria eza ez da norberaren barruko bakea bilatzeko moja eta fraideen bertute bat, baizik eta gizartean bizitzeko jarraibide bat, giza duintasuna bermatzea eta bakea lortzea helburu dituena, horiek baitira gizateriaren gogo sutuenak. Indarkeria ezaren lehen araua da justizia izatea nagusi gure inguruan, alor guztietan. Ezin da egiazko indarkeria ezaren alde egon eta, aldi berean, injustizia sozialei ezikusiarrena egin.*

*"Indarkeriaren aurkako Europako mugimenduek hitz bakar gisara erabili izan dute beti indarkeria eza (noviolencia...). Horren zergatia hau da: garbi azaltzea indarkeria eza ez dela bakarrik zuzeneko indarkeria ukatzea, baizik eta gizartea eta gu geu errotik aldatzeko proiektu positibo bat. Helburua da 'egiturazko indarkeria' deritzona ezabatzea. Horretarako, ezinbesteko osagaia du helburuen eta bitartekoen arteko koherentzia".*

*(Paco Cascón)*

## Aztertu eta hausnartu

- Bilatu informazio gehiago AHIMSA eta Gandhiri buruz.
- Zer diferentzia dago indarkeria ezaren eta indarkeriaren aurkako mugimenduaren artean?
- Zer deritzozu indarkeria ezari bizitza-planteamendu gisara?
- Ghandik zioenez, indarkeria eza da:
  - gizateriak bere esku daukan indarrik handiena;
  - gizakiak sekula egin duen suntsipeneko armarik indartsuena baino indartsuagoa da.

### **Eta gainera...**

- *indarkeria eza beste biderik ez dauka gizateriak indarkeriari aurre egiteko.*
- *erresistentzia pasiboa metodo egokia da mehatxupean dagoen eskubide oro defendatzeko.*
- Aztertu taldean hausnarketa horiek, eta azaldu indarkeria ezaz zeuk daukazun ikuspegia.
- Aipatu indarkeriarik gabeko konponbideen hainbat adibide. Nola laguntzen dute konponbide horiek gatazkak gainditzeko (etxean, lagunekin, herrian, munduan...)
- Uste duzu indarkeria eza nahitaez ezarri behar dela bizitza-planteamendu gisa, edo askatasun osoz hautatu behar duela norberak? Zertan eragiten die zure erantzunak senitarteko edo lagunekiko harremanei?



# Gaztelu bat behar dugu defendatzeko?<sup>1</sup>

## Helburuak:

- Jarrera positiboak erabiltzea gatazkei aurre egiteko.
- Gatazkaren zergatiak bereiztea.
- “Gatazka” eta “injustizia” kontzeptuak elkarrekin lotzea.

## Garapena:

Lehenbizi, 5-10 lagun hautatu jokoaren begirale aritzeko. Azaldu lagun horiei gatazka bat asmatu behar dugula, eta paper batean idatzi behar dutela jokalariek esaten eta egiten duten guztia. Taldeko gainerako kideak bi taldetan banatu, A eta B. A taldekoei eman kartak, plastilina-pusketa bat eta kartatan jokatzeko alfonbratxo bat (berde horie-takoa). B taldeari, berriz, eman karta-joko bat eta azalera labainkorreko gauzaren bat (kristal bat, edo xake-taula). Esan bi taldeei Erdi Aroko bi herri direla, eta gaztelu bana egin behar dutela etsaiengandik (beste taldea) babes-teko. Kartekin egin behar dute gaztelua. Hogei minutu dituzte kartekin gaztelua eraikitzeko. Gaztelu altuena egiten duen taldeak irabaziko du jokoa. Baldintzak eta arauak:

- Ez da erabili behar jokorako banatu ez den materialik.
- Ez da joko-eremutik irten behar. Animatezaileak markatu behar du eremua, bi taldeak joko-barruti bakar baten barruan jarriz.
- Ez dago beste araurik.

Ekin jolasari. Animatezaileak ez du jokoa esku hartu behar. Jokalarien galderei ere ez die erantzun behar. Gehie-nera ere, aholkuak eman diezazkieke begiraleei, ongi egin dezaten dagokien lana. Hogei minutuak amaitutakoan, ekin eztabaidari. Hasteko, begiraleek idatzi dutena aztertu; ondoren, bi taldeetako jokalariek egindako iruzkinak. Azpimarratu, lehenbizi, jokoa zehar azaldu diren sentimenduak eta erreakzioak. Taldekide guztiei eman hitz egi-teko aukera. Elkarrizketari ekindakoan, aztertu sortutako gatazka, eta sakon ikertu haren zergatiak. Azkenik, bila-tu gatazka horren antzeko egoerak gure gaurko munduan.

**Materiala:** Bi karta-sorta, mahai-tapiza, kristal bat eta plastilina-pusketa bat.

**Iraupena:** Ordubate

\* Hemendik hartua. [www.fundacioperlapau.org](http://www.fundacioperlapau.org)

## Irakizunak:

Jokoa biziagoa egitearren, eman B taldeari ezertarako balio ez duen materiala (zuloak egiteko gailua, kateorrazak...). Hartara, hasieran itxaropen handiagoak izango dituzte, berehala frustrazio bihurtuko bazaizkie ere.


Beste irabaztea da neoliberalismoak mundu osoan bultzatzen duen lehiakortasunaren eredu argiena. Estatu aberatsek, izan ere (Mendebaldekoak gehienak), aberats izaten jarraitu nahi dute, kosta ahala kosta.

Munduko indarkeria estrukturalaren sinboloa da materialaren banaketa bidegabe hori (bidegabekeria ekonomikoa, botere-banaketari dagokiona, giza eskubideekiko errespeturik eza...).

Herrialdeen jokabideen antzekoak izaten dira sarritan jokalarientzat (ez dute aitortzen indarkeria estrukturalaz beren probetxurako baliatzen direla, armen bidez defendatzeko joera izaten dute, uko egiten diote berdintasun-egoeran elkarlanean aritzeari, izugarri eskuzabalak sentitzen dira karitate-ekintza miserableren bat egiten badute...).

## Jokoa amaitutakoan...

- Nola sentitu zarete jokatzeko ari zinetela?
- Zein izaten dira gatazken zergatiak?
- Egoera hobetu ala txarto egiten dute jarrera erasokorrekin gatazka bat dagoenean?
- Zer emaitza lortuko ziratekeen elkarrekin lehiatu ordez elkarrekin elkarlanean aritu izan bazinete?
- Uste duzue beste era batera konponduko zatekeela gatazka arau batzuk adostu izan bazenituzte?
- Gure gaurko munduko zer egoera dira gatazka horren antzekoak? Begiratu zuen eguneroko bizimoduari, bai hurbilekoari bai zuengandik urrutiko gatazkei.





# Termometroa

## Helburuak:

- Ideia bati buruzko jarrera bat hartzea eta arrazoiak azaltzea.
- Hausnarketa egitea gerrari eta indarkeriari buruz.

## Garapena:


Aurkeztu taldeari indarkeriari eta gerrari buruzko esaldi-sorta bat. Pertsona bakoitzak gai horiei buruzko 'tenperatura' hartu behar du. Horretarako, 1etik 10era bitarteko puntuazioa eman behar dio esaldi bakoitzari (1, oso balio txikia du esaldiak; 10, oso balio handia). Ondoren, taldea elkartu behar dute, 'tenperaturak' elkarrekin aztertu eta esaldi bakoitzari buruz hitz egiteko.

**Materiala:** Fitxa.

**Iraupena:** 20 minutu.

## Fitxa

1. Gerra ezinbestekoa da, berezkoa baitu giza izaerak.
2. Askoz zailagoa da norberaren grina ezkutuak menperatzea mundua armen bidez konkistatzea baino.
3. Gerra da bide bakarra (edo eraginkorrena, behintzat) gizakien arteko botere-gatazkak konpontzeko.
4. Indarkeriarik eza ez da pasibotasuna, eta adierazten du (batez ere) borroka egiteko prestasuna. Mendekuak ahultasuna adierazten du.
5. Gerrari esker asmatu izan dira mendebaldeko zibilizazioaren historiako aurrerakuntza tekniko garrantzitsuenak.
6. Armamentu-norgehiagoka adimenaren aurkakoa da.
7. Indarkeriak ez du inongo gatazkarik konpontzen, indarkeria-ekintza gehiago eragiten baititu, aurrekoak baino larriagoak askotan.
8. Indarkeriak gatazka gehiago sortzen, zauriak irekitzen eta bideak ixten ditu.



## Helburuak:

- Hausnarketa egitea nortasun pertsonalaz eta kolektiboaz.
- Ohartzea nortasuna gatazka-iturri izaten daitekeela sarritan.

## Garapena:

Esan taldeari hausnarketa egiteko honetaz: nortasun pertsonala eta kolektiboa pertsonen eta taldeen arteko ohi-ko gatazka-iturri gisara. Esan, bestalde, nortasun ezberdinen arteko talkak eragindako benetako gatazka bat aipatzeko, eta hori gainditzeko alternatiba egokia proposatzeko.

**Materiala:** Nortasunari buruzko fitxa.

**Iraupena:** 30 minutu.

## Nortasuna

Gizon-emakume guztiok ditugu besteengandik bereizten gaituzten ezaugarri batzuk. Jaiotzean, azal-, begi- eta ile-kolore jakin batzuk izaten ditugu. Ezaugarri fisikoez gain, psikologikoak ere baditugu. Heldu ahala, besteekin harremanetan aritu ahala, jokabide berriak ikasten ditugu. Etxean, ikastetxean, auzoan edo herrian... gure izateko eta besteekin bizitzeko era lantzen dugu.

Ezaugarri horiek guztiak eratzen dute gure nortasuna, pertsonala eta soziala. Gure nortasun pertsonalak izaki bakan egiten gaitu. Kulturak, familiak eta inguruneak osatzen dute gure nortasuna.

1. Egin dezagun hausnarketa gure nortasun pertsonalaz, gure ezaugarri fisikoez, gure izenaz, familiaz... Zure ustez, horrek guztiak bereizi egiten zaitu besteengandik, identifikazio berezia ematen dizu? Zure nortasun pertsonaleko zer osagai dira zure familiako beste kide batzuenen antzekoak? Eta ezberdinak? Ezberdintasun horiek izan al dira inoiz gatazka-iturri? Nola konpondu duzu gatazka?
2. Jatorriak ere badu zerikusia gure nortasunean. Bizi garen lekuak, herrialdez edo hiriz aldatzeak (edo gure aurrekoek aldatu izanak)... horrek ere badu garrantzia nortasun aberatsa eta pluralaren erakuntzan. Egin zure familiaren zuhaitz genealogikoa, aiton-amonengandik hasita; azaldu non bizi izan den haietako bakoitza, beti leku berean bizi izan diren ala norabait emigratu izan duten... Zer eragin du horrek zure nortasunean?
3. Hausnartu bestekiko harremanetan landu eta gure nortasuna osatzen duten ezaugarri horiei buruz: kultura, ohiturak, bizikidetzeta... Horrek guztiak munduaren ikuspegi jakin bat ematen digu; horregatik, ez da harritzekoa gatazkek sortzea nortasun ezberdineko pertsona edo kolektiboen artean. Benetako nortasun-gatazkaren batzuk ezagutuko dituzu, bertatik bertara edo komunikabideen bidez. Egin ezazu zerrenda bat. Taldeka, hautatu interesgarriena iruditzen zaizuen gatazka, eta pentsatu zer konponbide emango zeniketen.
4. Zure ustez, nortasun batzuk hobekak edo egokiagoak dira beste batzuk baino? Zergatik?

# Bideoa proiektatzen den bitartean

## Zine-emanaldia

### Helburuak:

- Gatazkak konpontzeko hainbat bide ikastea.
- Gatazkei irtenbide baketsua ematearen garrantziaz jabetzea.
- Gatazkak (pertsonalak, komunitate artekoak eta nazioen artekoak) ezinbestekoak direla ohartzea.

### Garapena:

Bideoaren gidoia banatu. Esan ikasleei arretaz irakurtzeko. Ondoren, bideoa proiektatu. Fitxan hutsik dauden tar-teak bete behar dituzte bitartean. Hurrena, talde guztiak elkartu.

**Materiala:** Bideoa ikusteko gidoia.

**Iraupena:** 40 minutu.

### Bideoa ikusteko gidoia

#### *Bideoko hitz garrantzitsuak eta ideia nagusiak*

- .....
- .....
- .....

#### *Gatazkak konpontzeko proposamenak (bideoan ageri direnak)*

- .....
- .....
- .....

#### *Osatu beharreko esaldiak*

- Ukiezina, gardena eta kementsua .....
- Aniztasuna dagoen gizartean, gatazkak .....

- Milaka erabaki hartzen ditugu egunero. Bidez, .....gara.
- Gure gizartearen egituratzen dituen gizakien arteko harreman horretatik .....
- Gizon-emakumeen arteko harreman horiek taldeen, .....
- Gataztak konpontzeko, lehenbiziko pausoa .....
- Elkarrizketarik gabe .....
- Elkarrekin adoz jartzeko gai ez bagara .....
- Lagun-talde batek adibidez gatazka bat konpontzeko norbait .....
- Iraganeko esperientziez baliatu behar dugu .....
- Arma horren ematzak ere hortxe dauzkagu .....



## Bideo Foruma

### Helburuak:

- Bideoa proiektatu ondorengo lehen iritziak jasotzea.
- Hausnarketa egitea bideoaren alderdi esanguratsuenez eta ondorioez.
- Ikaskideei azaltzea gatazken tratamenduari buruz dugun iritzia.
- Gatazkei ekiteko eta haien konpontzeko bideak aurkitzea eta ikastea.

### Garapena:

Proiektzioaren ondoren, taldeka bildu ikasleak gidoiko datuak konparatu eta horiei buruz iritzia emateko (ikus aurreko jarduera), baita jasotako iritziak eta ondorioak eztabaidatzeko ere.

**Materiala:** Denen artean jorrazteko galderak.

**Iraupena:** 20 minutu.

### Talde guztiak elkartzean egiteko galderak

- Zer eszena gustatu zaizkizue gehien edo iruditu zaizkizue deigarrienak?
- Zer mezu zabaldu nahi du bideoak?
- Zer eszena iruditzen zaizkizue hurbileneoak?
- Nola konpontzen dituzte bere arteko gatazkak bideoan ageri direnek?
- Zer erakutsi dizuete Venezuelako eta Indiako kulturek gatazken tratamenduz?
- Bideoan ikusi dugun horretatik, zer ekintza garatzen ditugu jada, eta zer ekintza gara genitzake? Egin gogo-eta zure hurbileko inguruan, zure gizartean eta munduan gertatzen denaz.

# Eszena-aldaketa

## Helburuak:

- Jabetzea gatazken tratamenduan komunikazioak eta elkarrizketak duten garrantziaz.
- Egoera baten antzezpena aztertzea.
- Komunikazio-trebetasun batzuk ikastea gatazkek tratatu eta konpontzeko.

## Garapena:

Bi ahalmen handi ditu komunikazioak: batetik (harrigarria badirudi ere) gatazka sor dezake; bestetik, gatazka konpontzen lagun dezake. Etengabe komunikatzen gara elkarrekin. Ba ote dakigu, ordea, behar bezala komunikatzen? Egin dezagun honako proba hau: hiru boluntario eskatuko ditugu eszena labur bat antzetzeko. Horietako bakoitzak rol bat interpretatu behar du (ikus fitxa); taldeko gainerakoek, berriz, erne begiratu eta entzun behar dituzte “akto-reen” komunikazio-trebeziak eta jardunak. Ondoren, elkarrekin aztertu antzezpenaren alderdi esanguratsuenak, baita komunikazioaren garrantzia ere gatazkek konpontzeko. Azkenik, elkarrizketaren ondorioak oinarri harturik, eszena berregin eta antzestu.

**Materiala:** Fitxa.

**Iraupena:** 45 minutu.

## Fitxa

**Arosa** Oso haserre zaude. Zure lagun hoberenarekin geratu zinen atzo. Eztabaida gogorra izan zenuten, gaizki-ulertu bat zela eta. Beste pertsona batzuen bitartez jakin duzu lagun horrek gezurra esan dituela zutaz. Lagunak onartu egin du gauza horietako batzuk esan zituela, txantxa modura betiere, baina gainerakoa beste pertsona horiek asmatu zutela dio. Ez duzu inoiz horren eztabaida gogorrik izan zure lagunarekin. Nahikoa buila egin zenuten biok, eta gauza gogorrak esan zenizkioten elkarri. Gaur, berriz, damututa zaude atzo gertatutakoagatik, eta triste. Bi lagunekin geratu zara, atzokoaren berri eman eta nola sentitzen zaren azaltzeko.

**Ainhoa** Arrosari zer gertatu zaion eta nola sentitzen den entzun ahala, hura kontsolatzen eta animatzen saiatzen zara. Gertatutakoari garrantzia kentzen saiatzen zara, honelako esaldien bidez: *"ez eman horrenbesteko garrantzirik", "ez zaitetz kezkatu; konponduko da", "ez da hainbesterako ere", "ez gehiago pentsatu horretaz"...*

**Daniel** Arrosak kontatu dizuna entzun ondoren, hainbat galdera egin dizkiozu, informazio gehiago eskuratzearren: Zer dela eta portatu zinen horrela? Bururatu al zaizu...?... Erantzunen arabera, zure iritziak eta aholkuak eman ditzakezu horrelako egoeretan egin behar denaz: *"hori ez da jarrera egokia", "errua berea da", "halako esan behar diozu", "hoberena duzu...."*

## Talde guztiak elkartzean egiteko galderak

- Komunikazio-arazo batek sortu du gatazka. Nola saihestu zitekeen gatazka?
- Zuen ustez, entzute-jarrera aktiboa izan dute Danielek eta Ainhoak?
- Zer oztopo antzeman dituzue komunikazioan?
- Uste duzue ona dela iritziak eta aholkuak ematea? Sentitzen du Arrosak besteek entzuten dutela?
- Uste duzue ona dela gertatutakoari garrantzia kentzea? Nola sentitzen da Arrosa?
- Egin gogoeta honetaz: zer esan behar zioten Danielek eta Ainhoak Arrosari babestua senti zedin eta bere lagun hoberenarekin hitz egitea erabaki zezan, hartara, gatazka konpontzeko. Zer jarrera izango luke pertsona bakoitzak? Antzestu eszena.

# Elkarrekin bizitzen

## Helburuak:

- Aztertzea nola kudeatzen diren gatazkak elkartean/ikastetxean.
- Hausnarketa egitea elkarteko/ikastetxeko ohiko gatazkei buruz. Bizikidetzaz zaintzeko eta gatazkak behar bezala tratatzeko tresna baliagarriren bat sortzea edo aztertzea.
- Elkarrekin ados jartzea, edo proposamenak eta iritziak adostea.

## Garapena:

Egin diezaiogun begiratu bat gure elkarte/ikastetxeari eta hausnar dezagun nola antolatu bizikidetzaz eta nola ekin gatazkei. Azter dezagun elkarteko/ikastetxeko bizikidetzaz-eskuliburua egokia den dauzkan helburuak betetzeko. Egin ditzagun eskuliburua hobetzeko proposamenak. Eskulibururik ez baduzue, taldeak txosten bat adostu behar du –elkarrizketa bidez–, bizikidetzaz arautzeko.

**Materiala:** Taldean hausnarketa egiteko galderak.

**Iraupena:** Ordubete.

## Taldean hausnartzeko

- Nola kudeatzen ditu gatazkak elkartean/ikastetxean?
- Zer estrategia bultzatzen eta proposatzen dira gatazkak konpontzeko?
- Nola tratatzen dira ikasleen arteko gatazkak? Eta irakasleen artekoak? Eta irakasleen eta ikasleen artekoak?
- Zer ikasten dugu elkartean/ikastetxean barruko bizikidetzazaren antolaketaz eta gatazken tratamenduz?
- Badago elkarteko/ikastetxeko bizikidetzaz-eskulibururik?

Baldin badago...

- Tresna baliagarria da bizikidetzaz-gatazkak konpontzeko?
- Zer proposamen egiten ditu gatazkak konpontzeko?
- Zer bide erabiltzen du adostasuna lortzeko?
- Zer hobetuko zenioke eskuliburuari? Taldeka, egin ekarpenak eskuliburuari eta, ondoren, denon arteko batzarrean adostu, gero ekarpenak eskuliburura biltzeko.

Ez badago...

- Taldeka, hausnartu zer egon behar duen bizikidetzaz-eskuliburuan, eta proposatu ideiak harako.
- Denon artean, elkarte talde guztietako proposamenak eta adostu ideiak, elkarrizketa bidez; azkenik, elkarreko/ikastetxerako bizikidetzaz-eskuliburua prestatu.



# Bake-epaileak

## Helburuak:

- Aztertzea bitartekaritza gatazkak konpontzeko tresna gisa.
- Adostea bitartekaritza-prozedura bat ikastetxerako/elkarterako.

## Garapena:

Oso tresna baliagarria da bitartekaritza gatazkak konpontzeko. Eskolek, lagun-taldeek, auzo-elkarteek, kirol-taldeen eta abarrek erabiltzen dute (ikus bideoa). Nazioarteko harremanetan ere erabiltzen da bitartekaritza. Batzuetan, izan ere, beste norbaitengana jo behar izaten da, auziarekin zerikusirik ez duen batengana, gatazkan bitartekari aritu dadin. Galdetu taldeko kideei zer deritzoten bake-epaileak egoteari gatazkak bideratzeko (ikus bideoa). Ondoren, osatu lan-taldeak. Horietako bakoitzak bitartekaritza-sistema bat asmatu behar du bere ikastetxerako/elkartetarako, eta argi adierazi zein diren:

- Arduradunak.
- Bideak.
- Tresnak.
- ...

Proposamen guztiak elkarrekin aztertu ondoren, egokien deritzona hautatu behar du taldeak.

**Iraupena:** Ordubete.



# Negoziatuko dugu?

## Helburuak:

- Eguneroko bizimoduko negoziazio-egoerak ezagutzea.
- Negoziazioaz baliatzea adostasuna lortzeko ikastetxeko benetako gatazka batean.

## Garapena:

Negoziazioa da gatazka konpontzeko beste bide bat. Sistema honekin, ez da kanpoko laguntzarik behar, gatazkan diharduten gizon-emakumeak eurak gai baitira negoziatzeko eta ados jartzeko.

Zerrenda bat egin behar du taldeak hainbat alorretan ohikoak diren negoziazio-egoerekin: familia, ikastetxea, auzo-elkartea, lantegia, nazioarteko harremanak... Ondoren, berrikusi ikastetxeari dagozkion egoerak. Hautatu ikasleek elkarrekin negoziatu beharra daukaten egoera bat, eta egin jarduera praktikoa, irakasleak gidatuta (ikus dokumentazioa).

**Materiala:** Irakaslearentzako dokumentazioa.

**Iraupena:** 2 ordu.



## Irakaslearentzako dokumentazioa

### IKASTURTE-AMAIERAKO BIDAIA: pausoka negoziatzearen adibidea

1. Egin galdera-saio bat, denen iritziak eta nahiak jakiteko. Litekeena da zenbait lagunek leku berera joan nahi izatea. Pertsona bakoitzak leku bat bakarrik hauta dezake.
2. Egiatzatu denen iritziak jaso direla.
3. Pertsona bakoitzak azaldu behar du zergatik hautatu duen halako lekua eta ez beste halakoa.
4. Eskatu hainbat laguni parafraseatzeko taldekoek eman dituzten arrazoiak. Parafraseatzea da ozenki azaltzea besteek aurrez adierazitakoa, informazio hori denek entzun eta uler dezaten. Adibidea: Mariak Parisa joan ahi du, entzuna baitu oso hiri polita dela eta gauza interesgarri ugari dituela ikusteko. Oskarrek nahiago du Benidormera joan, eguraldi ona egingo duelako eta giro ona izaten delako hiri horretan.
5. Elkartu talde batean leku bera hautatu duten pertsonak. Talde horretara bil daitezke parafraseatzeko edo arrazoen azalpenak iritziz aldarazitako pertsonak ere. (Taldeak gero eta handiagoak izango dira; opor-lekuak, berriz, gero eta gutxiago).
6. Osatu diren taldeak behin betikoak direla ziurtatukoan, ekin negoziazioari. Talde bakoitzak ordezkari bat hautatu behar du negoziatzaile jarduteko. Ordezkaria negoziatzera bidali aurretik, taldeak eztabaidatu behar du zein diren bere jarreraren alderdi “aldaezinak” eta zein “sakrifikatuko” lituzkeenak. Ondoren, negoziatzaileak elkartu eta elkarriketari ekin behar diote. Hona hemen negoziazio-adibide bat:
  - 1. taldea. Hautatutako lekua, Paris: Gure alderdi aldaezinak hauek dira: atzerriko hiria izatea eta museo eta monumentu ezagunak edukitzea.
  - 2. taldea. Hautatutako lekua, Benidorm: Gure alderdi aldaezinak hauek dira: taldeko inor inoiz egon ez den leku batera joatea. Giro oneko lekua behar du izan.
7. Akordiorik lortzen bada, hor amaitzen da negoziazioa; lortzen ez bada, beren taldeetara itzuli behar dute negoziatzaileek, negoziazioak aurrera zergatik ez duen egin azaltzera. Berritri aztertu behar dira alderdi aldaezinak, jarrera malgutu eta negoziatziora itzultzeko. Akordioa lortu arte, behar hainbat bider egin behar da aipatu joan-etorria.

# Istorioak kontatuko ditugu

## Helburuak:

- Gatazka aukera-iturritzat hartzea.
- Egoerak antzezteko irudimena eta sormena garatzea.

## Garapena:

Taldeko kide guztiei gertatu zaie, zalantzarik gabe, honako hau: gatazka bat izan, hura gainditu eta, gainera, beste aukera batzuk ekarri dizkie. Kontatu horrelako kasuak, taldeka, eta hautatu bat antzezteko (mimika edo kantu bidez, albistegi gisara...).

**Materiala:** Antzezpenera eskatzen duena.

**Iraupena:** Ordubete



# Kasuak eta kontuak

## Helburuak:

- Gogoeta egitea eguneroko bizimoduko gatazkei buruz.
- Egoera berriak asmatzea, gatazka bat egokiro konpondu ondoren.
- Hausnarketa egitea gatazkek tratatzeko eta konpontzeko alderdi garrantzitsuenei buruz.

## Garapena:

Taldeka, hausnarketa egin behar dute eguneroko bizimoduko gatazka jakin batzuei buruz eta bat hautatu, nahi duten irizpidearen arabera (gatazka konplexuena, bitxiena...). Hurrena, talde bakoitzak besteei aurkeztu behar die gatazka, hura 'konpondu' eta egoera berria aurkez dezaten. Ondoren, ideia-jasa egin behar da gatazkek konpontzeko alderdi nagusiei buruz, eta horien arabera bozkatu behar dira gatazka bakoitzerako konponbideak.

**Iraupena:** 40 minutu.



# Azken desafioa<sup>2</sup>

## Helburuak:

- Sormena lantzea gatazkak konpontzeko tresna gisara.
- Gizarteratzea gatazkari eman dakizkiokeen konponbideak.
- Jabetzea irudimenak duen garrantzia gatazkak konpontzeko tresna gisa.

## Garapena:

Proposatu taldeari amaiera irekiko gatazka bat, eta hiru minutu eman konpontzeko. Ez daukate zertan erantzun perfektua asmatu, baina komeni da erantzun bat gutxienez idaztea, simplea iruditzen bazaie ere. Hiru minutuak igaro ondoren, eskatu parte-hartzaileetako batzuei taldeari azaltzeko erantzunak. Azkenik, eztabaidarako gai batzuk ere proposa daitezke:

Zer gertatzen da jendeak gatazka edo egoera zailei aurre egin behar dienean? Nola erreakzionatzen du?

Zer eratako konponbideak eman zaizkio gatazkari? Erabat alferrikakoak dira?

Zein dira gure taldeko gatazka ohikoenak?

**Materiala:** Idazteko materiala.

**Iraupena:** 15 minutu.

## Irakizunak:

Taldearekin zerikusia izan dezake eztabaidatu beharreko gatazkak, edo taldeak berak proposatu. Hemen dituzue amaiera irekiko arazo batzuk, jarduera egiteko egokiak izan daitezkeenak: "Asmatu metro-txartel batek balio duenarekin norbait ilargira bidaltzeko sistema"; "Everest mendiak bista ezkututzen du; asmatu sistema bat mendia botatzeko"; "Asmatu hurrengo 30 egunotan gure herrialdeko airearen poluzioa erabat ezabatzeko sistemaren bat".

<sup>2</sup> Honako honen egokitzapena da: Epstein, R. (2002) El gran libro de los juegos de creatividad. ONIRO: Bartzelona.

# Ahimsa harresia

## Helburuak:

- Adierazpide artistikoa bakearekin lotzea.
- Bakeari buruzko eztabaidagune irekia sortzea.

## Garapena:

Proposatu taldeari “*AHIMSA harresi*” bat sortzea, hau da, ikastetxeko/elkarteko pareta bat bakeari buruzko mezuak eta sinboloak marrazteko edo idazteko erabiltzea. Bakea eta artea elkarrekin uztartzeko lekua da harresia, ikastetxeko/elkarteko jendearen ekarpenekin pixkanaka hazten joango dena.

Murala egiteko, gaur egungo gatazkak irudikatzen dituzten posterrak, pegatinak, irudiak, marrazkiak, sinboloak... eskuratu behar dituzte, baita haiek konpontzeko proposamenak aurkeztu ere.

**Materiala:** Pareta, pintaketak eta graffitiak egiteko materiala, posterrak...

**Iraupena:** 90 minutu.



# Aurpegiak eta arrastoak

## Helburuak:

- Irakaspenak ateratzea gatazken tratamenduan eredarri den jendeagandik.
- Gatazken tratamenduari buruzko txostena prestatzea taldean.

## Garapena:

Gatazkak maneiatzen, tratatzen eta bake bidez konpontzen eredarri diren pertsonen irudiak imajinatu behar dituzte. Irudiek adierazten duten ezaugarri nagusia azaldu behar dute. Hortik abiatuta, gatazkak konpontzeko dekalogoia eratu behar dute, taldeka.

**Iraupena:** 40 minutu.

